

- Gu Plis eta Plas gara; Plis ezkerrekoa da eta Plas eskuinekoa. - esan zioten Eleneri.
- Badakizue zer gertatu zaidan entrenamenduan? - galdetu zien Plisi eta Plasi.
- Bai, badakigu zer gertatu zaizun entrenamenduan; gu izan gara ez dizugunak korrika egiten utzi.- aitortu zioten Eleneri.
- Zergatik egin didazue hori? - galdetu zien Plis eta Plasi.
- Oso txarto zaintzen gaituzulako pentsatu genuen hori egitea - esan zioten Eleneri.
- Barkatu hain txarto zaintzeagatik! -esan zuen Elenek.
- Bai barkatzen dizugu baina hurrengoan, ez zaindu hain txarto mesedez! -esan zioten Plis eta Plasek.
- Eskerrik asko barkatzeagatik, zin egiten dut ez zaituztedala inoiz hain txarto zainduko. - esan zuen Elenek.

Azkenean zapatariarengana joan ziren, Plis eta Plas konpontzera. Elenek ez zituen berriro Plis eta Plas txarto zaindu. Botak eta Elene lagun handiak egin ziren. Ordutik aurrera Elene ez zen bakarrik sentitu.

Bota gora bota behera ipuin hau bota batek asmatu duela.

• • • • •
“Plis eta Plas”
Ane Santiago
 11 urte - Murga
 2011 - C kategoria
 1. saria
 • • •